Osakidetza

**RESOLUCIÓN Nº 101/2020 DE LA DIRECTORA GERENTE DE LA RED DE SALUD MENTAL DE ARABA, POR LA QUE SE PROCEDE A APROBAR LA APERTURA DE LISTAS DE MOVILIDAD HORIZONTAL DEFINITIVA Y TEMPORAL PARA LA UNIDAD DE PSIQUIATRIA INFANTIL EN LA CATEGORIA DE AUXILIARES DE ENFERMERIA EN LA RED DE SALUD MENTAL DE ARABA.**

Que por Resolución nº 98/2020 se ha procedido a aprobar la relación definitiva de las listas de Movilidad Interna Definitiva de la Red de salud mental de Araba derivadas del Acuerdo de 27 de noviembre de 2019 del Consejo de Administración de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

Que por resolución nº 183/2019 se procedió a aprobar la relación definitiva de las listas de Movilidad Interna temporal de la Red de salud mental de Araba derivadas del Acuerdo de Normativa de Movilidad horizontal temporal de la Red de salud mental de Araba de 7 de marzo de 2012.

Que elaboradas ambas listas se ha visto la necesidad de contar con las funciones propias de la categoría de Auxiliar de Enfermería en la Unidad de Psiquiatría Infantil de la RSMA.

Que no existiendo listas de movilidad de auxiliar de enfermería con destino la Unidad de Psiquiatría Infantil, procede aprobar la apertura de las correspondientes listas.

Por todo los expuesto, y en uso de las facultades en materia de personal atribuidas por la legislación vigente,

**RESUELVO**

**PRIMERO.-** Aprobar la convocatoria para la apertura de listas de Movilidad Horizontal Definitiva y Temporal para la Unidad de Psiquiatría Infantil dirigida a la categoría de Auxiliar de Enfermería de la Red de Salud Mental de Araba y que figura en Anexo a la presente Resolución.

**SEGUNDO.-** Acordar la publicación de la presente Resolución en los tablones de anuncios y en la página web de la Red de Salud Mental de Araba.

**TERCERO.-** Contra la presente Resolución, podrá interponerse Recurso de Alzada ante la Dirección General de Osakidetza, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación, de conformidad con la Ley 39/2015, de 1 de

octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

En Vitoria-Gasteiz, a 17 de junio de 2020.

**Fdo: Eguzkine de Miguel Aguirre**
**Directora Gerente**

Osakidetza

# CONVOCATORIA PARA LA ELABORACION DE LISTAS DE MOVILIDAD HORIZONTAL DEFINITIVA Y TEMPORAL EN LA RED DE SALUD MENTAL DE ARABA **PARA LA UNIDAD DE PSIQUIATRIA INFANTIL EN LA CATEGORÍA DE AUXILIAR DE ENFERMERIA**

## NORMATIVA APLICABLE

Listas de Movilidad Interna DEFINITIVA: Acuerdo de 27 de noviembre de 2019, del Consejo de Administración de Osakidetza- Servicio Vasco de Salud, por el que se aprueban los criterios generales para la provisión de puestos mediante movilidad interna definitiva en las organizaciones de servicios del Ente Público Osakidetza-Servicio Vasco de Salud.

Listas de Movilidad Interna TEMPORAL: Acuerdo de Normativa de Movilidad horizontal temporal de la Red de salud mental de Araba de 7 de marzo de 2012.

## REQUISITOS Y AMBITO PERSONAL

Los aspirantes deberán cumplir obligatoriamente los requisitos y ámbito personal establecidos en las normativas de las listas en las que pretenden incluirse además de pertenecer al puesto funcional de **Auxiliar de Enfermería.**

## BAREMO

Se aplicará a cada una de las dos listas (Movilidad definitiva y Movilidad Temporal, el baremo establecido en sus respectivas normativas.

## DOCUMENTACION A PRESENTAR JUNTO CON LA SOLICITUD

- Certificado original de servicios prestados, **excepto** los que ya consten en la aplicación informática SAP- Recursos Humanos, que serán computados de oficio.

- Fotocopia compulsada de certificación de perfil lingüístico. Estarán **exentos** de aportar la documentación acreditativa del conocimiento de euskera quienes tuvieran ya reconocida la acreditación del correspondiente perfil lingüístico o tengan acreditada la equivalencia del perfil lingüístico emitido por otra Administración Pública por parte de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD

Osakidetza

## PLAZO DE PRESENTACION DE SOLICITUDES

Del 18 de junio de 2020 hasta el día 07 de julio de 2020 incluido.

## LUGAR DE PRESENTACION DE SOLICITUDES

Servicio de Personal de la Red de Salud Mental de Araba.

## FORMA DE PRESENTACION

Las solicitudes se realizarán en los modelos adjuntos a esta convocatoria.

En Vitoria-Gasteiz a 17 de junio de 2020.

**101/2020 ZENBAKIKO EBAZPENA, ARABAKO OSASUN MENTALEKO SAREAREN ZUZENDARI KUDEATZAILEARENA, ZEINAREN BIDEZ ONARTZEN BAITA BEHIN BETIKO ETA ALDI BATERAKO MUGIKORTASUN HORIZONTALEKO ZERRENDAK IREKITZEA HAURREN PSIKIATRIAKO UNITATERAKO, ARABAKO OSASUN MENTALEKO SAREKO ERIZAINTZAKO LAGUNTZAILEEN KATEGORIAN.**

98/2020 zenbakiko Ebazpenaren bidez, Arabako Osasun Mentaleko Sareko behin betiko barne-mugikortasuneko zerrenden behin betiko zerrenda onartu da. Zerrenda horiek Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren 2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren ondorio dira.

183/2019 zenbakiko ebazpenaren bidez, Arabako Osasun Mentaleko Sareko aldi baterako barne-mugikortasuneko zerrenden behin betiko zerrenda onartu zen. Zerrenda horiek 2012ko martxoaren 7ko Arabako Osasun Mentaleko Sareko aldi baterako mugikortasun horizontalari buruzko araudiaren ondorio dira.

Bi zerrendak egin ondoren, beharrezkoa ikusi da Erizaintzako Laguntzaile kategoriari dagozkion funtzioak betetzea OMZko Haurren Psikiatriako Unitatean.

Erizaintzako laguntzailearen mugikortasun-zerrendarik ez dagoenez Haurren Psikiatria Unitaterako, bidezko da dagozkion zerrendak irekitzea.

Azaldutako guztiagatik, eta indarrean dagoen legeriak langileen arloan ematen dizkion ahalmenak erabiliz, honako hau

**EBAZTEN DUT**

**LEHENA.-** Haurren Psikiatriako Unitaterako behin betiko eta aldi baterako mugikortasun horizontaleko zerrendak irekitzeko deialdia onartzea. Arabako Osasun Mentaleko Sareko Erizaintzako Laguntzaile kategoriarako da, eta ebazpen honen eranskinean dago jasota.

Osakidetza

**BIGARRENA.-** Ebazpen hau Arabako Osasun Mentaleko Sarearen iragarki-oholetan eta webgunean argitaratzea.

**HIRUGARRENA.-** Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Osakidetzako Zuzendaritza Nagusian, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko ekainaren 17an.

**Fdo: Eguzkine de Miguel Aguirre**
**Directora Gerente**

Osakidetza

**ARABAKO OSASUN MENTALEKO SAREAN BEHIN BETIKO ETA ALDI BATERAKO MUGIKORTASUN HORIZONTALEKO ZERRENDAK EGITEKO DEIALDIA. ERIZAINTZAKO LAGUNTZAILEAREN KATEGORIAKO HAURREN PSIKIATRIAKO UNITATERAKO**

## APLIKATU BEHARREKO ARAUDIA

Behin betiko barne-mugikortasuneko zerrendak: Erabakia, 2019ko azaroaren 27koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluarena, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua ente publikoko zerbitzu-erakundeetan lanpostuak behin betiko barne-mugikortasunaren bidez betetzeko irizpide orokorrak onartzen dituena.

Aldi baterako barne-mugikortasuneko zerrendak: Arabako osasun mentaleko sarearen aldi baterako mugikortasun horizontalari buruzko araudiari buruzko akordioa, 2012ko martxoaren 7koa.

## BETEKIZUNAK ETA LANGILE-EREMUA

Izangaiek nahitaez bete beharko dituzte sartu nahi diren zerrenden araudietan ezarritako baldintzak eta eremu pertsonala, eta, gainera, **erizaintzako laguntzailearen** lanpostu funtzionalekoak izan beharko dute.

## BAREMOA

Bi zerrendetako bakoitzari (behin betiko mugikortasuna eta aldi baterako mugikortasuna) dagokien araudian ezarritako baremoa aplikatuko zaio.

## ESKABIDEAREKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

- Emandako zerbitzuen jatorrizko ziurtagiria, SAP- Giza baliabideak aplikazio informatikoan daudenak izan ezik, horiek ofizioz zenbatuko baitira.

- Hizkuntza-eskakizunaren ziurtagiriaren fotokopia konpultsatua. Euskararen ezagutza egiaztatzeko agiriak ez dituzte aurkeztu beharko dagokion hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta dutenek edo Osakidetza-

Osakidetza

Euskal osasun zerbitzuak beste administrazio publiko batek emandako hizkuntza-eskakizunaren baliokidetasuna egiaztatuta dutenek..

## ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA

2020ko ekainaren 18tik 2020ko uztailaren 7ra arte, egun hori barne.

## ESKABIDEAK AURKEZTEKO LEKUA

Arabako Osasun Mentaleko Sareko Langileen Zerbitzua.

## AURKEZTEKO MODUA

Eskabideak deialdi honi erantsitako ereduetan egingo dira..

Vitoria-Gasteizen, 2020ko ekainaren 17an.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD